

Atarikue

Hogeita bost urte bete ditu gure Maritxuk; hango milagrua, anekdotie ta lagunarteko juergie. Edozeinek esango leukien kontra, Maritxu Kajoi ez da gañontzeko jaixek modukue, ta ez bakarrik herritar (zein kanpotar) guztixok dotore-dotore jazten garelako, ez hoiixe. Maritxu Kajoi, mundu guztixen ez dau halakoik egon, txikiteruen jaixe da, txikiteo orduen sortu ta ataratakue. Urte dexente pasau die leleno kuadrillak korbata jantzita txikiteuen urten euienetik; urte dexente pasau da, lelenoz ardaue itturritik edan zanetik. Hala ta be, Maritxuri urtiek apenas igerketan jako, oin hogeita bost urte besteko edar eta polit dau-eta gure ama birjiñe kuttune.

Hogeita bost urte horreik laburketie ixe eziñezkue bada be, Maritxun urteegunek esku artien daukozun liburue egiteko aukerie emun dosku. Argazkixek, anekdotak, aittaketako moduko gertaerak, mirarixek, eskapulaixuek... batu dittugu, Maritxui ta bide batez Arrasateko herrixai eskerak emuteko.

Eskerrak emun gure dotzuegu jaixe diruz lagundu dozuen guztixoi: Arrasateko edo inguruetakotajetxe ta tabernetakotagazabei, ta urtero eskapulaixuek erosten dozuenoi. Eskerrik asko dotore jantzi, eskapulaixue lepotik jarri ta lagun artien jai giruen ibiliz ospakizun berezi hau posible egin dozuen guztixoi. Eskerrik asko be Komisiño honi euren borondate onenaz lagundu dotzien eta gaurko egunien laguntzie emuten dotzien guztixei. Eta azkenik, eskerrik beruena Maritxu festan zidarrezko ezteiak diela-ta eskuartien dogun

liburue kalera atarateko lanien ibili zaien guztixoi.


Maritxuk mirari asko egin dau eta ixe urtero ekarri dosku pozen bat, baña amabirjinak ondion bete barik dauko mirari bat, herritar danok bakarrik bete eragin geinkena; Euskal Presuek etxien ikustiena. Orduen egunien kenduko dau Maritxuk bihotzien dauken tristurie ta ez da izengo "Ez Gaude Denok" dixon kartelik, ehundaka eztarik mirarixen zain "Maritxu nora zoaz" kantetan dauien bitartien.

Agurtu baño lehen eta pasautakuek gogoraketan hasi aurretik, komisiñuek topa egiten gonbidaten zaitue. Txikito on baten moduen, zabalduizue maitasun haundixaz egindako liburu hau eta On egin daizuela!!!



Aurkibidea

Historia	4
Urtez-urte...	5
• 1977	6
• 1978	8
• 1979	10
• 1980	12
• 1981	14
• 1982	16
• 1983	18
• 1984	20
• 1985	22
• 1986	24
• 1987	26
• 1988	28
• 1989	30
• 1990	32
• 1991	34
• 1992	36
• 1993	38
• 1994	40
• 1995	42
• 1996	44
• 1997	46
• 1998	48
• 1999	50
• 2000	52
• 2001	54
Nobenaixue	56
Maritxun TXANPANA	58
Kantuek kontu	60
"Maritxu nora eruen zaue?"	62



Txikiteuen ohiturie herrixen sustraite euen 70eko hamarkadaren hasieran. Urte horreitan, gaurko egunien baño gehixauten ebillen jentie txikiteuen eta kuadrilla ugeri eta haundi samarrak ibiltten zien tabernaik taberna txikituek eraten. Tabernetako girue oso ezberdiñe zan gaurko egunekuen aldien, asteazkenien gabez kantuen ibiltten zien, izen be, ez euen musikaik tabernetan. Danetik ibiltten zan txikiteuen, 16 urtekuek, heldutxuauek eta agure nausixek... Horrein guztien erdixen euen Pepe Txantxote, Arrasateko gizon alai ta saltserue. Muletakin ibiltten zan txikiteuen ta kuadrilla batzuk, Txantxote ikusten euen bako-txien, trago batera gonbidetan euen. Harek, basue altxau eta esaten euen: "¡por Maritxu!". Behin baten kuadrilla hareittako gazte batzuk, Maritxu ha emaztea zalakuen, adarra jotén hasi jakon. Zalantzak argitze alde, parroixako ate nagusire beittu ta zera erantzun eutzien: "No te-neis ni idea, Maritxu es esa, Maritxu Kajoi, patrona de los txikiteros!". Orduen ezautu euen kuadrillek gure Maritxu Kajoi.

Orduen sasoién, kultura ekintzak antolaketan ibiltten zan jentie batu ta Maritxu Kajoi festa egiteko asmuek hartu euen indarra. Lelengoko proposame-netan, 1975 urtien egitea eukien buruen, baño orduen bizi izendako zer batzuk (Txiki ta Otaegin zein Iñaki Etxaben hilketak...) zer horretan itxi

euen asmue. Horren aurrien, bigarrenez hurrengo urtien egitea pentsau euen. Hala ta be, bigarren aldixen be huts egin euen. Izen be, aste bat lenau On Jose Luis Iñarra herriko parrokie hil zan, mezie emuten ebillela.

Azkenien iritsi zan festan egune, 1977ko urriaren 5ie, eguakotxien, Maritxu Kajoi festa ospatu zan. Hazixe ereinde euen, partizipaziñue eskasa izan arren. Hala ta be, honeitan urtietan egindako euri-xek ederto asko sustraitu dau orduko hazixe. Ta zuetako askok galdera egingo dozue: zeaittik urri-aren leलगoko eguakotxien? Ba, urriaren 5a Errosaixoko Amabirjiñien egune dalako ta orduen urtien eguakotxa tokau zanez ta gainontzeko urtie-tan aste barruen ez egiteko, eguakotxa jarri zan.


Ordutik hona, politto-politto sortzen ta indarketan joan zan Komisiñuek hartu dau jaixen ardurie ta, autofinantziaziañuek emuten dauen autonomia oinarrixen hartute, milleka izerdik benetan balixo izan dauela frogatu da; ikusi baño ez dau zer emaitza izan dogun.

Ez zan ez ospatu festaik 1976 urtien, baño kuadri-lla batek topa egin euen Maritxu Kajoin omenez. Argazkixen ikusten dan letxe, "pre-estreineko" aldixen be eurixe egin euen. Emuten dau harrezke-ro "patue" gure kontra jarri dala.



Urtez urte...

1977



KARTELAREN EGILIE:

Jagoba Aranzabal

Aurreko bi urtietan pentsauta egon ta prestaketa lanak egin ta gero, ezin izen zen ospatu Maritxu, zoritxarreko hainbat heriotza

tarteko. 1975ien Iñaki Etxabe hil euien ta 1976xen On Jose Luis Iñarra parrokie mezie ematen ebilela hil jakun. Mirarixe txikixe pentsetan jatzue Maritxu Kajoi ospaketie?.



Anekdotak

- Orduen, Zubillaga zan Mondraueko parrokue ta Jose Antonio Altuna, "Txatillo", alkatie. Komisiñokuek dana prest eukienien, bi horreik emundeko agindduei jarraituaz, brigadak kajoie kendu euen jaixen bezperan. Jaixe antolaketan ebitzen artien urdurittasune nagusitu zan, bañe ez zan dana bertan bera itxi; atie ondo garbitu ta lorak ttukun-ttukun jarri zien. Hola ekin jakon gaur egun horrenbeste maite dogun jaixai!
- Maritxu Kajoi eurixe egite hori lelengoko urtien bertan hasi zan. Ze pasauko litzake, gaurko egunien, orduen egunien egualdi ona egin baleu?.
- Antzinako mutil gaztiek ziero moz-kortute ibili zien txikiteroen amabir-jinaren izenien.

AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Lelengo urteko Maritxu Kajoi egunien, eskapulaixue pegatina bat izen zan.
- Antolaketan sei-zazpi pertsonak hartu euien parte. Zer egingo leuke gaurko egunien Komisiñuek horren jente gutxiaz!
- Lelengo urteko partehartzie kas-karra izen zan, lelengoko ordue-tan oso jente gutxi jantzi euen korbati ta. Baña afalostien, jentie animetan hasi ta lepuen jarri euen.
- "Betoben semeak" txarangiek bere burue aurkeztu euen Maritxuri egindako lore eskaintzan.

1978



KARTELAREN EGILIE:

Jagoba Aranzabal ta
Iñaki Arana

Ez dakigu zer txarraz
edo zer hori barik,
baña ez da sekule
deklarau komisiñuen
aldetik oin artien. Oingo

azterketa sakonetik konklusi-
ño garbixe: jaixei hasierie
1977 urtien emun bajakon be,
1981 arte ez zan miraririk
egon. Eta kitto!.



"Maritxu Kajoi, patrona de los txi- kiteros, hoy en Arrasate"

"Muchas son las anécdotas que se pueden recoger de este día. La de aquel policía municipal que afirmaba con satisfacción «Menos mal que me libro de tarde» cuando tuvo conocimiento de que se le iba a poner un nuevo cajón a la virgen, pese a la oposición de los inquisidores."

La Voz, 1978ko urriaren 7a



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Aurreko urtien kajoie kendu egin euienez, berri bat egin behar izen euien. 35.000 pezetako kostue izen euen ta Peino-ren aroztegi-xen egin zan.
- Jose Markiegik korbata pilue emun zittuen, jentie dotore-dotore fateko. A ze detallie!.
- Antolaketan kuadrila askotako jentiek hartu euen parte.

Anekdotak

- Jaixe antolaketan hasi zienien, ondio ez eukien Maritxundako kajoirik. Baña baekixien udaletxe-ko alondigan euela. Abuztuko gaba baten, hara fan ta «berreskuratu» egin euien neurrixek hartzeko. Jaixe antolatzailliek kajoie hartzen euzen bittartien, ez dakigu zelan baña baten batek kartel hau jarri euen: «Maritxu al cajón, el párroco a Trintxerpe». Egune heldu zaniien, goxien, kajoie barrixe bere tokixen jarten fan zien. Udaltzainek tokixe zainketako agindue eukien. Honeik bi errelebotan banatuta euzen; goxeko errelebuen Arbe euen ta atsaldekuen, barrez, Jose Manuel Arriola. Arbe kajoie jarten ebitzienekana hurreratu ta eskatu eutzien mese-dez atsaldeko erreleborarte ez egi-teko ezer. Hala, jaixen antolatzailliek atsaldeko hiruretan bueltau zien euren lana egitera. Han euzela, Jose Manuel Arriola agertu ta zera galdetu eutzien: «Zeintzuk zarie zuek kajoie jarteko?» ta bes-tien erantzune: «Jose Arrasaten semie, Jaxinto Guridin semie, Andres Bidaburun semie ta Anastasion semie». Hori entzundakuen aguro asko fan zan, ta hala kajoie jarri ahal izen zan.



1979



KARTELAREN EGILIE:


Jagoba Aranzabal.



Orduen urtien komisiñuek ataratako materixela eta hainbat argazki hemen dauz ikusgai. Egixe esan, Maritxu Kajoin jaixe apal hasi zan eta oin ez sinisketako modukue egiten bajaku be, hemerrotekak aztertu eta gero ez dogu orduko urteko Maritxuri buruz ezer aittatute aurkitu, eta herritarren aldetik be ez dogu anekdotarik edo barririk lortu.



1980



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Komisiñuek ataratako materixela eta hainbat argazki hemen dauz ikusgai. Egixe esan, Maritxu Kajoin jaixe apal hasi zan eta oin ez sinis- ketako modukue egiten baja-

ku be, hemerotekak aztertu eta gero ez dogu orduko urte- ko ezer aittatute aurkitu, eta herritarren aldetik be ez dogu anekdotarik edo barririk lortu.



1981



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

I luntzeko zortzirak jo-
teko euzen. Gure
Maritxun inguruen jente
pillue batu zan ordura-
ko. Guztixek urduri, gaztie-
k ta ez hain gaztie-
k be bai. Jaixen nondik
norakuek aike-
tan ez euenik be baebilen
inguruen. Maritxun doñuaz

batera zoramena nagusitu
zan. Ordurarte inork ez euen
uste Maritxu Kajoi mirarixe
egiteko gauze zanik. Baña
...a ze ustekabie hartu euien
hara batutakuek, herriko pla-
zako iturritik urek urten
biherrien ardau baltza urte-
ten hasi zani-
en!.





"La fuente de la parroquia manó vino tinto en la fiesta de "Maritxu Kajoi"

"La Virgencita silenciosa, que hasta hace cuatro años había permanecido olvidada" y que había mucha gente aquí en Mondragón que no sabía ni que existía", pasó el viernes a ser el punto central de la jornada."

Ezezaguna

Anekdotak

- Mirarixek gaztetxuenen artien sortu euen emozioek bultzatute, iturrira hurbildu ta gustora asko edan euien hango ardaue. Komisiñoko partaidiek «haurren iraultza» hari aurre egiteko ta guraso askon haserriek bareketa-ko, eten egin biher izen euien ardau jarixue.
- Antolatzaileek presupuestue ordainketako tabernaz taberna fan biher izen euien diru eskien. Laguntzak batzeko kajien enkar-gaue Gorriti jarri euien.



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Urte berien, Maritxu Kajoi jaixen hurrengo domekan «Kilometroak 81» ospatu zan Arrasaten. Jai egunien bertan be ikusi zien ikas-tolen aldeko festaren pegatinak.
- Eskapulaixue Jose Luis Iñarrari, Arrasateko parrokue izen zana, eskeini jakon, berak emun eut-zonta Maritxuri jai hontako pro-tagonista izateko baimena.
- Mirarixen gogotik edan zien 600 litro ardauok Cruz Torresi (Rumba) erosi jakon. Kupela bete ardau, inork ez ikusteko, «Mondragón» ileapaindegian gorde zan.

1982



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Gaurko egunien hain ezaune dan petardo-dun arkue. Orduen lelenengokoz jarri

euen Maritxu Kajoik, Astondoa enpresak lagunduta. Mirari koloretsue benetan!.



"Hoy, la popular fiesta de Maritxu Kajoi"

"Se trata de una jornada que a partir de las seis de la tarde se envuelve en ambiente popular, pintoresco y jocoso; y es una fiesta que la han hecho suya las cuadrillas de chiquiteros que aprovechan esta ocasión para rendir singular homenaje a esa imagen mariana que se encuentra en su hornacina del exterior de la parroquia de San Juan Bautista en la Erdiko Kale."

El Diario Vasco, 1982ko urriaren 1a

Anekdotak

- Antolatzaileek jaixe promozionau guran, irratixen kuña batzuk sartu euien. Itxura danez, anuntziue jente askok entzun euen ta kanpotar asko etorri zan herrire. Hala ta be, herritar askok ez euen begi onaz ikusi hainbeste kanpotar etortie.
- Lore eskeintza akabetako euela, (Euskal Herrian Euskaraz) EHEko kidiek, jente asko euela aprobe-txauaz, lema hau eukien papalak bota euien: "Maritxu euskaraz? Fai, fai. Eta tele kakajoia? Noiz?."



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Lelengokoz txosnak jarri zien Maritxu Kajoi egunien.
- Herriko tabernarixek, modu ofizialien, dirulaguntza emun eutzien Maritxu Kajoi jaixei. Harein ta beste askon laguntza barik ezin egin jaixe.
- Herriko talde askok hartu euen parte jaixen. Horrein artien: trikitilarixek ta gaiteruek.

1983



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Orduen sasoiaren ur haundixek izen zienta kaltetuenak bilbotarrak izan zient. Horren aurriz, Maritxuk, kaltie hartu euienei 100.000 pezetako dirulaguntzie emutiaz aparte, Aste Nagusiko

protagonistie gonbidau euen: Marijaia. Sortu zient arazuek ziela-ta, Bilboko erregiñie ezin izen zan etorri, baña haren jarraitzailiek, konpartsetako kidiek, lau autobus bete ta jaixen ondo pasetan etorri zient.

"Las anécdotas"

"Este año también tiene las suyas. El más prestigioso director de txarangas "el mudo", deberá dirigir su banda con la pierna escayolada y, por primera vez se establecerá un servicio de recogida de "cuerpos tirados" para conducirles a casa a quienes por razón del alcohol y otras causas se encuentren en la imposibilidad de hacerlo."

La Voz, 1983ko urriaren 7a



"La ikurriña en el ayuntamiento"

"No milagro pero sí ikurriña. Finalizado el homenaje, una torre humana colocaba la ikurriña en el Ayuntamiento. Esta actuación mereció el aplauso de las numerosas personas que presenciaron su colocación."

La Voz, 1983ko urriaren 8a



Anécdotak

- Lora eskeintzan parte hartzen ebilen txarangako "Kuki"ri suzko erruberen txingarrak alkondarie erre eutzen. Kaltiek ordainketako, komusiñuek 2.225 pezetako beste barri bat erosi biher izen eutson.



1984



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Aurreko urtien ez bezala, orduen sikutiek izen gauen Euskal Herriko lurretan. Ta egoera haren aurrian, Maritzuk "Hortentsia" hurakana ekarri euen Arrasateko Erdiko kalera. Hortentsiak

kalte material ta pertsonal asko eragin zituen: txaranga-ko kidiek ta harein instrumentuek tartien. Hurakana Erdiko kaletik bakarrik pasau bazan be, gaba haretan egualdi txar-txarra egin euen, ta sikutiek amaitu zan.

Anekdotak

• Mirarixe posible izeteko, herriko ur sistemie manipulau ein biher izen zan. Inguruetako auzuek ur barik geldittu zien. Bañe Maala kalien euen Aizkora tabernak, auzuetan ez letxe, ure sobra euki euen, hango tabernarixek harro asko esaten euen letxe. Halabe, handik urte bira, zorixe kontra jarri jakon ta herriko kaka danak komuneko zulotik gora urten eutzien, ta sufirru egin behar izen euen orduko ahaztute euen mirari haren eragine. "kaka zuretake ta, kaka niretake..."

• Goxeko 4:30etan sokamuturre egi-teko asmue euen, bañe gauzak lelengotik okertu zien. Ganaue ekarteko ardurie euen Orozkoko ganauzañe gabeko 10etan agertu zan herrixen ta denporie sobra eukenez biher baño txikito gehixau hartu zittuen. Hala, ordue ailegau zanién, Zumeta (abeltzañe) ez zan agertu ta komisiñokuek haren bille fan biher izen euién. Egoera hartan ganau bakarra soltau zan ta harek ihes egin euen. Zezen trebie Muxibar tabernaraño fan zan igesi ta jabiek eziñien jarraitu eutzon atzetik. Igesaldixen herritar ta auto kaltetu ugari egon zan, asko ta asko hiruñaka ta launaka anbulantzian fan biher izen euién. Ospitaleko "larrialdi zerbitzuak" guztiz paralizau zittuen igesien fan zan zezenak. Azkenien, Luixito Pagoaga komisiñoko kidiek harra-pau euen zezena. Dana dala, ige-saldixen torero lanak egiten animau zanik be egon zan; Jose Guridi Agirreurretak "Ortega Cano" n testigue hartu euen ta.

"Maritxu Kajoi, fiesta del txikiteador"

"Hay un catalán, que ronda los 26 años, que vino y sigue viniendo porque según él "esto hay que vivirlo para saber lo que es bueno". Sabemos que vendrán de Gasteiz; un sevillano que quiere saber de que va esto; un grupo de aragoneses y muchos otros que no podemos contabilizar, pero que aquí se encontrarán para pasar tan sólo unas horas, por ejemplo de siete de la tarde hasta lo que uno aguante, finalizando con la luz solar."

Ezezaguna

AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Lelengoko urtietan Maritxu Kajoi jaixen kartelaren egilie, Jagoba, hil zan.
- Lluís Llach Kataluniako kantari famauek kontzertue emun euen Amaia Antzokian.
- Lehenengoz koloretan egin zan jaixen kartela. Gañera, laguntzailiei lelengokoz emun jakien haiendako bereziki egindako eskapulaixo haundixe.



1985



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Aurreko urtien ger-
tau zan fenomeno
atmosferikuen,
"Hortentsia huraka-
na", bide bera jarraituaz,
edurre egin euen Arrasateko
Erdiko kalien. Hara batutako

jentiek ago zabalik ikusi
zituen edur matazak zerutik
behera. Kalie zuri-zuri gera-
tu zan arren, jaixen dotore-
tasuna erakusten dauen
kolore baltza izen zan nagu-
si.



"Naturalmente ha habido sus dificultades para llevar a cabo la fiesta, que nunca faltan los bienpensantes, y un párroco estrecho, chato mental, consideró que aquel jolgorio era una irreverencia y mandó retirar el cajón en el que se encontraba la virgen, dejando a ésta a la intemperie lo que, en mi opinión, es una irreverencia mucho mayor, pensando que de esta manera derribaba los proyectos de los amantes de Baco arrasatearras."

Donostiar batek, bere ikuspuntutik, prentsan argitaratutako artikulu batetik aterata



Anekdotak

- Mirarixe egin ahal izeteko, teila-tuen jarri zan tablie jausi egin zan. Feliciano Aranzabal behien euen ta ozta-ozta tartien harrapau euen. Orduko mirari haundixena, ezer txarrik ez gertaketie.




AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Egitarauen Euskal Herriko pre-suek idatzitako bertso sorta atera zan. Hauxe zioen zatitxo batek: "Aspaldi ura zegoen tokian zenuen ardoa sartu. Ongi dakizu kaiolatuak Nahi duguna zugaratu. Milagro hori handiagotuz Egin gaitzazu askatu. Hurrengo festa denok batera Egin dezagun ospatu."
- Suziriez arduratuta euen Astondoa enpresa berandu iritsi zan jarritako ordura. Horregaitik, lora eskeintza ohi baño beranduau hasi zan.



1986



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Maritzuk musikarako
euken dohaiak
herritarrei erakutsi
guran, batuta

eskuen hartu ta txarangaren
zuzendari lanak egin zituen.
Hala, Txumaik merezitako
atsedena hartu ahal izen euen.



"Maritxu Kajoi opta a la dirección de la Sinfónica de Euskadi"

"Sobran las palabras y las letras. La festividad de Maritxu se vive, es imposible contarla. ¿Cómo se puede contar el gran milagro de la amatxo de los txikiteros que por una vez y sin que sirva de precedente, dirigió desde su kajoi los cánticos del "Nora zoaz..."? "

Egin, 1986ko urriaren 5a



Anekdotak


•Egin-en argitaratu zan "El ascensor y el amor" izeneko artikuluen bikote abenturazale baten pasartie agertu zan. Hauxe zioen: "pero hasta ahora no habíamos oído un lugar tan exótico como eligió una pareja de convecinos. Visto que la cosa apremiaba, pues echaron mano de lo que tenían. Y lo que estaba más cerca era la puerta de un ascensor de esos de los grandes. Y dicho y hecho, a dentro. Con tal mala fortuna que los de la planta de arriba, necesitaron uso de tal artilugio. Y le dieron al botón, claro. Nuestra pareja en plena función pensaba que estaban ascendiendo al Nirvana. Pero la cosa era más prosaica y más sencilla. Cuando se abrió la puerta del ascensor en vez de encontrarse con Buda y San Pedro se encontraron con los del piso de arriba. No les quedó mas remedio que saludar y marcharse."



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Txanpana lelangokoz atera zan Maritxu Kajoi egunien. Kataluniatik ekarri euien 8.400 boteilatan, guztixek etiketau barik. Baña komisiñoko kidiek Etxazuri taberna zarrien egin euien etiketetako lana.
- Arrasateko konpartsak lelangokoz urten euien ta kaleik kale ibili zien.

1987



maritxu kajoi 87
urriak.2



Kajoigilea dugu
txit mutil azkarra.
herri honetan bada
beraren beharra.
Erabil zazu, ana.
zeruko indarra
infernuko sulotik
libratzeko Txarra.

KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Hain famaue egin zan
"Yo quiero ser tore-
ro" kantuek,
Maritxurengan be

eragina izen euen. Hala, tore-
ro jantzita ikusi gauen gure
patroie. Ole Maritxu!



"Protesta por la festividad de Maritxu Kajoi"

89 arrasatearras consideran la misma como claro exponente de un estilo descaradamente ofensivo y vergonzosamente opresor e impune. "Llevamos muchos años con el corazón dolido, mordiéndonos la lengua, con la sangre hirviendo, pero incapaces de hacer valer nuestros derechos y defender nuestra dignidad reprimidos por los "nuevos amos de la calle" y que se burlan, pisotean y ofenden los sentimientos más profundos e íntimos de un gran número de personas, del pueblo, hombres y mujeres de bien, que en muchos casos sienten y viven además adhesiones profundas y ancestrales de FE y de cariño y devoción marianas."

Egin, 1987ko urriaren 21a



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Komisiñoko laguntzailie Joxe Letona hil egin zan ta kartela haren omenez egin zan.
- Nobenaixue lelengo urtez ospatu zan ta horrekin batera be umien-dako ekintzak egin zien.

1988



KARTELAREN EGILIE:

Alcala-Meco espetxeko euskal presuek egina.

Maritzu Kajoik ehundaka kondoï banatu zituen miraria ikustera hurreratu zien guztixen artien. Orduen, Osakidetza

Hiesaren aurkako kanpaina egiten ebilen ta Maritzuk harekin bat egin euen, ta kondoiaz batera "Preserbatu" jartzen euen pegatiña bat banatu euen.



"Agur Maritxu hasta el año que viene"

"Personal que espera impaciente el momento del milagro de Maritxu, sorpresa para todos, y contento para los más pequeños a quienes eso del "sida" no les sonaba mucho y se pusieron a hacer globitos con el regalo de Maritxu, 500 preservativos."

Egin, 1988ko urriaren 9a

"Maritxu kondoi"

"La gente, por si acaso seguían produciéndose milagros, los cogió todos y en un sentiamen no quedaban globitos disponibles."


Egin, 1988ko urriaren 9a

Anekdotak

- Maritxu, muga guztixen gañetik, Nikaraguarano iritsi zan. Hala, Matagalpa herrixen, gure amabirginaren omenez Maritxu Kajoi jaixe ospatu euien.



1989



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Hamairugarrenean aidanez" 13. urteurrenien mirarixe egiteko prestatuta euen montajiek (fotozelulak eta urrutiko agintiek) kale egin euen.

Hala ta be, Maritxu Kajoiri lore eskaintza egiterakuen egundoko euri zaparradie egin euen; horrela, pasetan gebitzan sikutie handia eten zan.

"Esta vez no hubo milagros en la fiesta de Maritxu Kajoi"

"La decimotercera edición de Maritxu Kajoi, aparte del chascarrillo de que los organizadores se quedaron sin gasolina en el viejo Citroen del año 1924, tuvo la anécdota de que Maritxu no quiso hacer el anual y casi obligatorio milagro."

El Diario Vasco, 1989ko urriaren 7a

"Maritxu volvió a ser sinónimo de fiesta, aunque falló el milagro"

"Pese a la impagable idea de los vecinos de Cigarrola (que este año han organizado una carrera de burros para descentralizar la fiesta), está visto que no fue suficiente para descongestionar el mogollón."

Egin, 1989ko urriaren 8a

Anekdotak


- Urte osuen kajoi barruen egon ostien, Maritxu Kajoik apain-apain eginda urten euen Muruamendiaraz gozotegitik, lore eskaintza egin aurretik. Polit asko euen gure Maritxu!
- Orduko egunkarixetan, leiru geiken letxe, 7.500 litroko zisterna hamar bider erabili euen herriko kaliek garbiketako. Hori holan, argi ikusten da Maritxu Kajoin be ure biherrezkue dala...(kaliek garbiketako, jakiñe!).

AITTAKETAKO MODUKUEK:

Udaletxie obretan euenetz, dantzal-dixe Biteri aparkalekuen egin zan.



1990



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Betiko euri zaparradiatz aparte, krisi ekonomiko gordinaren erdixen Maritxu Kajoik banketxe propiue egi-nez, 1.000 pezetako billete zaparradie eragin euen, eta botatako billete guztien artien geurie ez dan banketxe ofizial bateko 40.000 pezeta euzen.

Nostradamusek egin euen letxe, Maritxu Kajoik 10 urte lehenau, gaurko egunien horrenbeste burukomin emuten douskun euroaren aurrien, alternatibie proposau euen herritar debotuen diru kontu eta laguntza ekonomikuek samurketako.



"Maritxu Kajoi Arrasaten"

"Maritxu izan zen ostiralean ere urtean zehar bezalaxe arrasatearren arima eta gorputzen zaindaria eta batek baino gehiagok eskertuko zion etxerako bidean balantza tartean emandako bultzadatxoa."

Egin, 1990eko urriaren 7a



"Goxeko 5etan"

"Monterroneko zelaixen Urbasan hazitako hogeitaxarikuma jareingo die, eta harrapetan dituenen on egin dagixela. (Abixue: harrapaketie esku hutsik egin bieko da)."

Programie, 1990eko urriaren 5a



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Ezin dittugu ahaztu Jon Agirre preso aramaioarrak Arrasateko herrixei bialdutako bertsoak.
- Orduen urtien gestio berezi bati esker, Galizia aldien hain ospetsue zkan "Artxubi Orkesta" gurea etorri zkan, eta ikuskizun aparta emun euen.
- Maixa eta Ixiar trikitilarixek be hemen izan gittuen, artien ospetsu izeteko bidien.
- Abuztuen, "Golf(k)oaren" gerrie hasi barri euela, denbora tarte horretan urtero letxe, Maritxu Kajoiren kofradixiek jai egitarau aparta antolau euen golfuendako.
- Aparteko lana be izan euen komisiñuek. Izen be, AED elkartiaz batera, irailien hasieran Xuberoko "Pastorala" ekarri euen Mondrauera. Muskildiko herrixek antzeztuteko "Abadia Urrustoi" pastorala izen geuen Monterronen.

1991



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Barriro be Maritxu Kajoiak gertakarixei aurrie hartu eutzien. Gaurko egunien Euskal Herriko udaletan onarketan dabitzen EHNA (Euskal Herriko Nortasun Agirixe) ekarri euen gure amabirjiñiek. Izan be hori ametsoi egixe bihurtu euen Maritxu Kajoiak orain dala 10 urte, Udalbatzarretik pasau

barik, eta Arrasate herria errepublika independente aldarrikatu euen. Horrela bada, lore eskaintza egin eta gero, hemengo Nortasun Agirixek bota zituen Maritxu Kajoiak. Agirixe Udaltzaingoan tramitetako zan eta gañera behekaldien ohar haxe leiru zitekeen; "Atxabaltako auzokoek orri berezia bete beharko dute".





"Maritxu Kajoi, dotore jantzi barik.... Ez dago edaterik!"

"Eta jakina Maritxu esker oneko andrea denez, urte osoan txikiteroari, aspaldiko usadio zaharrari, fin-fin jarraitu diotenei opari txikiren bat egingo die mirakulu gisa. Eta mirakulurik onena, eguraldi ona eta hego haizea egitea izango dela ezin ukatu, eta emakumeek behintzat eskertuko diote, beren soinekoak ederrak bezain finak izaten baitira Maritxu Kajoiaren ondorengo katarroak, egun bereko juergak bezain ospetsuak ditugu."

Egin, 1991ko urriaren 4a



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Arrasatear danak jaso ahal izan euien etxien kartela, Arrasate Pressek bana kaleratu euen-ta ale bakoitzeko.
- Azken urtietako ohiturai jarraituaz, 6.000 botila txanpan produziduen, ta txikiteruek gozoz ibilli ziren.
- Aurreko urteko arrakasta kontuen eukitze, Maritxu Kajoi komisiñuen eta AEDn eskutik Xuberoko ikastolak taularatutako "Harizpe" pastoralaren izen geuen Monterronen. Pastoral berritzaile eta ezin politaue izen zan eta bertako kantun bat mondrauetar askon artien famosue egin da: "Ez gera gibelduko...", zuetariko askok ezauketan dozue, ezta?



1992



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

5 00 urtien egindako barbariaren aurka ta Espainiak Amerika topau euenien (ez euen ba lehendik "topauta"?) indiar herriein egindako

sarraskia alkartasun ekintza moduen ulerturik, indiar batek jaurtitako azkon batek "pebeteroa" ixotu euen, Bartzelonako Olinpiadetan egin euen letxe.



"Historia de un pebetero"

"Que así se llama al famoso receptáculo que albergó la antorcha olímpica durante los juegos de Barcelona y fue el objeto de millones de ojos televisivos hasta que se supo que lo encendido de la flecha tenía truco. Pues no hubo engaño en Maritxu Kajoi, que hasta en eso se gana por puntos a un evento deportivo tan dado de sí. El pebetero se encendió solo, un poco tarde pero espoleado por el infinito amor de la patrona de los poteadores."

Egin, 1992ko urriaren 4a




Anekdotak

- Deustuko Tintingorri konpartsiek 1983an ekindako ohiturai jarraituaz, Maritxu Kajoi egunien Arrasatera etortie erabaki euen.
- Jose Agustin Letona "Ataxi" eta Alberto Errasti "Butakas" Venezuelara juen zien 1992ko abuztuen. Han euzela, Jose Agustin Letonak Bolibar (5.007 m.) mendixen gaña egin euen, eta han Venezuelako "Libertadoría"ren estatuai Maritxu Kajoin irudixe jarri eutzon buru gañien.

AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Maritxun Nobenaixue egiten hasi zanién, irailaren 25ien, Iñurrategi anaiek Everest-era iritsi zien. Hareik itzuli eta Maritxu Kajoi komisiñuek, omenaldi moduen, enbutue emun eutzien.
- Parrokixako Jose Luis Sakristau, Sanostias, kuttune hil zan. Muruamendiaraz gozotegiko eki-puaz batera Maritxu Kajoiren zaintzaile fidela izan zan. Hori dela ta, eskapulaixuen atzekal-dien haren argazkixe eta bertso batzuk jarri zien. Beti izango zara Maritxuren zaindari!.
- Eskapulaixuen preziue 100 PTatik 200 PTara igo zan.
- Maritxu Kajoi egunien ohorezko gonbidatu bat izan geuen Arrasaten: Marino Lejarreta. Jai giroaz gozatu eta Maritxu Kajoko eskapulaixuaz ikusi geuen.

1993



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Lore eskaintza egitera-
kuen, hornaziñan
gañekaldien bideo
kamera bat agertu
zan, eta han euzen danak
grabatu zituen. Orduen, poli-
tiko zurrutari moderau batek
(Atutxak) hainbat ekitaldi

publiko zaindu eta zelatetako
modan jarri euen begi izkutue
han izan arren, ekitaldixe
normaltasun osuaz egin zan.

Dana dala, mozkorrak kontro-
letako saiakerak huts egin euen
eta ez euien inor be atxilotu.





"El milagro fue filmado legalmente"

"Y como todos los años llegó el milagro, amenazante esta vez y con cámara (made in Arkaute-Japan) en ristre. Tras el agradecimiento por las juergas concedidas por Maritxu durante este año, surgió todo ojos la figura del hombre que todo lo ve, aunque sea con la longitud que da la distancia entre sus dos ojos y el visor. Y grabó a todo el mundo, y en el momento de redactar estas líneas, estamos aun a la espera de recibir una llamada en la que se nos informe que desde ya comenzarán las detenciones de los que participaron en semejante tumulto."

Egin, 1993ko urriaren 3a



Anekdotak

- Prentsan kamarero bati egindako entrebistan zer esan euen: "Maritxu Kajoi gabien 500 baso inguru apurtu die". Hau marka! Baso barik eztauela txikiteoik!.
- Eurixe gogotik ein euen. Hala ta be, jentiei ez eutzon askoik ardure izan, bai barrutik eta bai kanpotik bustitte euen ta.



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Maritxu Kajoi festan alde bakarra ezauketan badogu be, hau da, jaixe bera, halako jaixe posible egiteko, jende asko dago lan eta lan: jostunek, sukaldarixek, tabernarixek, kale garbitzailiek...

1994



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Parrokixie obretan eue-
lako, hainbat hiletan
Maritxu Kajoi lekuz
kanpo egon zan.

Maritxu Kajoin irudixe
desagerturik izan bazan be,
nahiko mirarixe izan zan jai
egunien betiko moduen han

egotie, Erdiko kaleko porti-
kuen. Parrokixako sotuen
beste Santu guztixen artien
denboralditxo bat emun eta
gero, argi geratu da gure
Maritxu Kajoi askoz be gusto-
riau dauela mondrauetarron
artien.

"Heldutasunera iritsi da Maritxu Kajoi jaia"

"Aipatzekoa da gainera, elizburu berriak ez zuela jaiaren zentzua Jose Luis Iñarrak bezain ondo ulertu eta iskanbilaren bat baino gehiago ere sortarazi zuela fededunen artean bere antolaketak. Halere laster baretu zien eliza eta jai batzordearen arteko hikamikak, besteak beste, herritarren gehiengoak berehala egin zuelako asmakizuna berea."

Egin, 1994ko urriaren 7a

"Los incondicionales de Maritxu cumplen con la tradición"

"Exclusivo es también el gasto en combustible que ocasiona, llegando a consumir 1.000 pesetas de gasolina en el trayecto de Arrasate a Bergara. Sin duda es la belleza lo que cuenta, máxime cuando su única salida al asfalto, con motivo de Maritxu, coincide con un día de sol radiante como el de ayer. Descapotado y recién lavado, el viejo Citroen B-14 de color rojo hace las delicias de cuantos se cruzan con él."

El Diario Vasco, 1994ko urriaren 8a

Anekdotak


- Aita Menni ospitaleko arduradunek esan euienez, gaixo dexenten faltie somau euien. Itxura danez, eguneroko pasiuen urten eta horren ondo ebitzen juergan, ezin izan euien etxera bueltau.
- Zurrumurrue zabaldu zan "Primitiva" herrixen tokau zala. Azkenien, bromie baño ez zala esan euien eta jende askon ametsak pikutara juen zien.

AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Maritxuk umetxo izatiei utzi ta adin nagusitasune lortu euen. Hamazortzi urte bizkarrien izanik, herritarroi ardaue edaten batu jakun. Zorionak Maritxu!
- Maritxu Kajoin irudixen lekuaren inguruen parrokiako batzordearen eta komisiñuen arteko eztabaidak hasi zien. Parrokiak 6 leku barri proposau zituen jente aurrien, guztixek parrokiatik urrinetako: Arbolapeta aldeko atien, Portaloién, Udaletxeko balkoién... Erabaki horren aurrien komisiñuek betiko lekue defendirú euen, Maritxu Kajoi 150 urte baño gehixau eruen-ta betiko lekuen.
- Baite be, jakin gauen prentsaren bitartez Francois De la Croix (Francisco De la Cruz) arrasatear famauek hogeita hamar urte beranduau, berriro, klarinetie jo euela dotore-dotore jantzita, Wody Allenen eran, eta agerixen itxi euen maisu handixe izan dala. Erguin auzuen orduen alkate pedaneu euenak, musikari ezin hobie ta betittik Maritxu Kajoi Komisiñuen laguntzaile zintzue, Javier Jaso Azpilikuetak animatu euen Francois serenata dotore ha emuten.



1995



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Maritzu Kajoik,
hainbatek lekuz
aldu gure euiela-
ko, ez euen mirari-
rik egin. Gure Maritzu Kajoiri
leku aldaketak ez eutson gra-

ziaik egin, parrokiako betiko
txokotik bota gure euien ta.
Hori zala ta, Maritzu Kajoik
miraririk ez egitie erabaki
euen.

"Maritxu santuekin gordeta"

"Askok honako galdera ibiliko duzue buruan: non pasa ei du urtea Maritxu Kajoik? Argazkian ikusten duzuen bezala kajo barruan egon da Maritxu. Baina non? Parrokiaren biltegian, parrokia zaharberitzean kendu diren beste hainbat irudirekin batera: San Antonio, Karmengo amabirjina eta beste santu batzuk izan ditu lagun Maritxuk urtean zehar."

Arrasate Press, 1995eko urriaren 6a



"Miraririk handiena, izandako giroa"

"Maritxuren inguruan gaztetxoak kokatu zien atzoko ekitaldian. Zalantzarik gabe esan daiteke hemendik urte batzuetara hauek izango direla Maritxu Kajo festaren erreleboa hartuko dutenak."

Egin, 1995eko urriaren 7a



Anekdotak


- Jaixen erdixen emakuma edadetu batek, parrokiara inguruen horrenbeste jente ikusitte, zera galdetu euen: "noz da mezie?". Ez ete daki honek parrokiek gaurko egunien jai hartzen dauela?



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Egitarauen, Iñaki Etxabe hil zuten 20. urteurrena gogoratu zan.
- Lehenengoz Arrasate Musikaleko bandak kalejira egin euen, Jose Ramon Vitoria zuzendari zala.
- Azkenengo urtie izen zan komisiñuek txanpana salgai jarri euela. 1986. urtien hasittekko ohiturie eten egin zan.

1996



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Maritxu Kajoik leku barrixe estreinau euen. Aldaketaren eraginez ta ez euzela konforme esateko, Maritxu Kajoik ke misteriotso

baten artien anka egin eus-kun. Dana dala, herriminak jota ta zeruen eliz barrutiak ez zuela onartu ikusirik, jaira bueltetie erabaki euen.

"Vigésima edición de una devoción"

"Pero no hay duda, como recuerda la comisión que Maritxu velará por Pitote y le reservará esa mesa que todos los años, invariablemente y despistado como era, Pitote intentaba encargar en el Irati a las 8 de la tarde de este viernes"

Egin, 1996ko urriaren 4a

"Maritxu apareció de entre las nubes"

"Tres jóvenes mujeres, elegantes y arrasatearras, se acercan al altar y realizan la ofrenda floral. Algunas señoras, jóvenes hace décadas, hablan con experiencia: "¡Qué bonita está la virgen!"

Egin, 1996ko urriaren 5a

Anekdotak

- Maritxuri urtero egiten jakon lora eskaintzan petarduek fusibliek erre zittuen. Hala ta be, ozta-ozta lortu euen Maritxuk ke artien anka egitie.
- Behinguagatik ez euen euririk egin Mondraueko kalietan. Izan be, egun berien ordu aldaketie suertau zan ta baleike horrek eurixe atzeraketie.




AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Gure artetik joan zan Pitote lagunari omenalditxue eskaini jakon egitarauko bertsuetan.
- Herrixen hain historikue eta sus-traituta euen Aizkora tabernak be atiek itxi zittuen.
- Maritxu Kajoik aurrerapen teknologikuekin bat eginez txoko propioe zabaldu euen web sarien, ta webgune barrixe sortu euen: www.danka.es/maritxu. Komisiñuek harrezkero urtero barriztu dau informaziñue, ediziño bakoxtaren gañien informaziñue zabalketako. Horixe izen dau helburu, mundu danai informaziñue zabalketie ta batez be Arrasateko diasporai.

1997

MARITXU KAJOI 97

urriak 3 • arrasate



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Zigarrola/Ziorla (Musakola) auzue eta Arrasateko herrixen arteko anaikidetza izan zan mirarixen gatz eta berakatz. Ziorlako astuek eta Arrasateko dragoiek adiskidetasune sinatu euien. Haren mirarixen jatorixe 1991.urteko eskapulaixuen atzekaldien dau. Han,

Maritxu Kajoik Ziorlako mugara bialdu euen. Behin bakie Ziorlako jentiaz sinatutakuen, ez dakigu Atxabaltako auzokuekin zer gertauko dan. Bestalde, ta mirarixe izen ez bazan be, Pako Robles-ek Maritxu Kajoik egunien bertan zapaldu zittuen Mondraueko kaliek, 16 urte kartzelan egin ta gero.





"Maritxu Kajoi tras la barra"

"Los camareros y camareras son, sin lugar a dudas, los personajes subliminales de la noche. Paradójicamente, su presencia cae tan de cajón que pasan casi desapercibidos, sobre todo, para aquellos que sexo, drogas y rock & roll por bandera, esgrimen sus escapularios al cielo alabando a Baco, dios romano de la orgía y desenfreno. Pero el trabajo de los camareros es fundamental; sin ellos no hay Maritxu, sin ellos no hay nada."

Extra, 1997ko urriaren 2a

Anekdotak


- Candido Moraleja Rodríguez herri-tarrak egun hortan 97 urte bete zittuen ta aurten, 2001. urtien, Candidok 101 urte bete ditu. Zorionak aittejaune!



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Alkatetza aldaketa "demokrati-kue" zala eta, Maritxu Kajoi jaia ospatuko ez zan zurrumurrue zabaldu zan herrixen. Zelan egingo dutzo muzin Maritxuk horrela-ko jai bati?
- Lelengoz, ta karta bidez, egunien bertan urtie egiten zittuen herri-tarrak zoriondu zittuen Maritxu Kajoik.

1998



KARTELAREN EGILIE:

Juan Luis Goikolea ta
Iñigo Arregi.

Maritzu Kajoiak bozik
bakuen eretxixe
kaleraketie lortu
euen. Hala,

Garzonek giltzapetutako EGIN
egunkarixen ale bat kaleratu
euen.



"Maritxuren indarrak Garzon garaitu du"

"Orri hauek gaurko parrokiako izkina honetara txikiterorako prest, dotore-dotore hurbildu zareten guztion omenez kaleratu dira. Afariak on egin dagizuela, eta biharko ajeak parranda gogoak ez ditzala itzali."

Egin berezia, 1998ko urriaren 2a



"Maritxu Kajoik EGIN egin zuen"

"Mirariaren ostean kaleak hutsak geratu ziren, eta tabernak leporaino beteta. Euriak ez zuen errukirik eta gaueko 11:30ak arte ez zuen atertu. Orduan Maritxurekin negoziatu eta atsedena hartzea erabaki zuen. Hori ere euren Amari eskertu behar txikiteroek."

Euskadi Información, 1998ko urriaren 4a



Anekdotak

- Maritxuk atara zituen EGIN aliek akats bat euki euien. Izan be, lelengoko ediziñuek 1996 urteko datie euken eta bigarren ediziñuek, barrez, data zuzena: 1998. Inprentako fallue!



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea margolarixek beren azken kartela egin euien. Mila esker egindako lan handixengatik bikote!
- Jesus Mari Martinez "Txumai" musika zuzendarixek urtietan egindako lanagatik merezirutako omenaldixe jaso euen herritarren partetik. Mila esker zuri eta zure lantalde guztixai!

1999



KARTELAREN EGILIE:

Kepa Altube "Kopi"

1 999ko udan, Sevillan izandako munduko atletismo txapelketan, "Repatriation for Bask prisoners" aldarrixe eruen euen Giraldu, lore eskaintza

egindakoan, Maritxu Kajoin lehenengo tokixen agertu zan. Hain famaue izan zan, ekintzak jarraitu egin euen Arrasateko jaixen.





"Maritxu Kajoiri lore eta ohore"

"Aurreko urteetako ohitura aldatuz, nobenaria larunbatetik ostiralera aurreratu zen, baina ez zuen aurre-
rapen horregatik arrakastarik galdu."

El Diario Vasco, 1999ko urriaren 1a



Anekdotak

- Mirarixen jentie ez zan konturetu Giralillie bertan euela, nahiz ta kriston fokuek argitu. Hala, komisi-
ñoiko partaide bik barriro igo biher izan euien fokuek ostera ixotu eta, ordularen batez, eskuek erre bihe-
rrien, han egon zien. Mirarixe mutur aurrien euki eta ikusi ez?



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Maritxu Kajoi komisiñuan partai-
dea zan Juan Jose Garmendia
"Yanyo"n omenez, Komisiñuek
haren argazkixe eta berari eskai-
nitako bertsuek atera zituen
eskapulaixuen atzekaldien.
Komisiñuendako ezusteko herio-
tza izan zan, gutariko inork ez
euelako halakoik espero, eta
hainbat bilera, proiektu, lan eta
farretan ezautu eta maitatu
gauen kideak utzi egin gintuela-
ko. Haren gomutie, ostera, gure
artien ibiliko da beti. Agur eta
ohore Yanyo!
- Lehenengoz jaixen kartela Kepa
Altube (Kopi) arrasatearrak egin
euen.
- Udazkeneko ordutegi aldaketa
ofiziala urriaren akaberarako
atzeratu zalako, ta Astondoa
enpresak prestaketan dituen suak
ikusten ez zielako, Maritxuri egin
biherreko lore eskaintza arratsal-
deko 8:30ek arte atzeratu zan.

2000



KARTELAREN EGILIE:

Kepa Altube "Kopi".

Barriro be Maritxu Kajoi in justizia bizi dauen kolektibuei alkartasune emunez Hondarribixeko Jaizkibel konpainia Arrasateko kalietan ziber desfiletan gonbidatu euen. Arratsaldeko 8etan

Maalako errebala kaletik urten eta txalo artien Maritxu Kajoi aurrekalderaino iritsi zien lore eskaintza egiteko orduen, ta han Maritxu Kajoi ren omenez hainbat salba bota eui en.



"Maritxu Kajoi invitió a la compañía Jaizkibel a desfilar en la fiesta"

"Maritxu Kajoi es una fiesta singular donde las haya, que cala entre mondrauetarras y foráneos por su especial carácter, y que así mismo hace hincapié en acontecimientos que van más allá de la entidad local de esta fiesta como es el derecho de las mujeres a participar en el Alarde de Hondarribia, reivindicado en esta ocasión."

Gara, 2000ko urriaren 7a

Anekdotak

- Jaizkibel konpañiak Arrasaten eduki euen harrera ona ikusita, jai-xen burubelarri ibili zien. Autobusen bi zitei (goxeko ordubixetan eta bostetan) kasuik egin barik goxien gox txapel ta zapi gorri ugari ikusi geuen kalietan.




AITTAKETAKO MODUKUEK:

Frai Rufino fraille estimauen ta Felix Iñurrategi mendizalien heriotziek astindu ederra emun eutzien orduko udaldiko bizimoduai. Hori dala ta, eskapulaixuen atzekaldien Rufino Ojanguren Uribetxeberria frantziskotarran argazkixe eta haren omenezko bertsuek idatzi zien. Jai egitarauen, abuztuen Himalayan hildako Felix Iñurrategin gañien be sentimenduz betetako aipamena egin zan.



2001



KARTELAREN EGILIE:

Kepa Altube "Kopi".

Orain 20 urte egin euen moduen, gure Maritxu Kajoik, kantuek esaten dauen moduen, iturriko ure ardo

bihurtu euen. Baina aurtan gurasuek lasai egon die, ez dittu euren seme-alabak moz-kortu eta.

"Bitxikeriez betetako 25 urte..."

"Abuztuan, urrirako mahai bila. Jendeak aguro espabilatzen du Maritxu gauerako mahaia erreserbatzerakoan: goiztiarrenegunegun bertan ematen dute izena hurrengo urterako. Besteak abuztuan hasten dira erreserbatzen. Kontuak kontu, Arrasateko jatetxeren baten afaldu gura baduzu, gutxienez udan deitu behar duzu."

Goienkaria, 2001eko urriaren 5a



"Liburua urteurrenerako"

"25. urteurrena ospatzeko, liburua aterako dute abenduan. Urte hauetan guztietan jasotakoak batu eta guztiondako oroigarri izatea gura dute; txikitik handira pasatu den jai berezi horren oroigarri. Eta bitartean, sekulakoa prestatu du gure Maritxuk; horri norberak ipini gura duena gehituz gero, hortxe festa galanta!"

Egunkaria, 2001eko urriaren 5a



Anekdotak


- Gabien giro ona egin euen ta inguratu zan jendetzaren egarria asetzeko txosnetako existentzia guztiak ibili zien, hola goxeko 5:30etan ezer barik gelditu zien.
- Liburu hau egiterakuan argazkiak topetako euki ditugun arazuak barriro be ez gertaketako, gox, atsalde eta gaba osuen argazki makiñie lepuen eukela argazkixek ataraten ibili zan komisiñoko partaide bat.
- Aurtengo nobenaixuen kriston euri zaparradie bota euen eta "jaimak" antzeko batzuetan sartuta egon gitzen danok. Hareik bai komerixak tramankulu horreik montetako! Danok injiñeru egin biheko gaitun/k!.



AITTAKETAKO MODUKUEK:

- Aurten Maritxuk 25 urte bete ditu. Urte askotarako Maritxu!
- Zidarrezko ezteiak zelebretako, 25 urte honeitan lanien ibili dien komisiñoko ia partaide guztixek bazkai edar baten inguruen batu zien.
- Mendi tabernako Sebastian Lasak egin euen ohorezko brindise, iturritik ardaue isuri zanien.





Nobenaixue

Maritxu Kajoi jaixen atarixen, **aurreko asteko eguakotxien**, komisiñuek antolaketan dauen lelen-go ekintza da nobenaixuena (bederatziurrena). **Txikiteruen zaindarixe** izatiaz aparte, **Erdiko kalien goikaldeko zaindarixe** danez, elixiek dauken hizkuntza liturgikue ibiliaz, jaixe zelebretako atzerako kontakietie hasten dala iragartzeko, Maritxu Kajoiren kofradiek Maritxu azpizen, umore onaz, gaztaie, ogixe ta ardaue emuten dutziei herritarrei, tripa truke.

Izan be, hori nobenaixo profanui lelenengokoz **1987. urtien** egin zan, ta harrezkero, 1998. erarte zapatuetan egin izen da, baña ikusiaz, batetik, jaixe eguakotxetan dala ta, bestetik, geruau ta jende gehixauk urteten dauela hortizier astegunetan, ta gaurko egunien lanetik edo eskolatik urteten dauenien jentiek txikiteue eguakotxetan gus-tora hartzen dauela, **nobenaixue Maritxu Kajoi egunien aurreko asteko eguakotxera aldatu euen** Komisiñuek.


Herritarrei ardaue ta gaztaie musu truke banatzien ohiturien erreferentzia Naparrueko Lakuntza herri-tik hartu euen Komisiñuek.

Izan be, urtero **Besaide mendi elkartiek** Korpus egunien **Larraitz-Aralarko San Migel ibilialdi** klasikue antolaketan euen, santutegixen bazkal-du ostien, mendizaliek, tartien komisiñoko kide batzuk, autobusien, Korpus Kristiren jaixek zelebretan zituen ta Sakanako Lakuntza herrira jais-ten zien egune biher dan moduen akabetako.

Herriko plazan, kontzejupien, herritar guztixei ta hara fandakuei, dohainik, herriko gaztaie bana-tzen eutzien udalak; gaztaie ondo pasetako, an-tziñeko **zidarrezko ontzi** batzuetan ardaue barra-barra banaketan eutzien. Ohitura jator ta adiskidetsu hori urtero ikusi ta bizi izandakuen, herrixai, jeneralien, ta txikiteruai, batez be, Maritxu Kajoiren jaixe datorrela esateko, txikiteo orduen, gura beste ardo, gaztai ta ogi, **sinistun ta sinisbakuen artien**, dohainik, banaketie pentsau jakon Komisiñuai.

Nobenaixuen tokixe beti izan da **Maritxu Kajoiren irudixe dagoen tokixen azpikaldie**; orduen, 1987. urtetik 1995. urte arte Erdiko kaleko portiko aldean izan da, baña 1996. urtetik aurrera Maritxu Kajoi irudixen leku barrixen azpizen, **herriko plazaren iturri "miraritsuaren" atzekaldien** egin da. 1994. ta 1995. urtietan parrokiako obrak diezela-ta por-tikue erdi hartuta baeuen be, komisiñuek portikuen lekue eginez, han, ordu arte, beti letxe, nobenaixue egin euen.

Lelengotan, **Arabako Errioxako Oion herritik, ta azkeneko urtiotan La Puebla de Labarkatik** eka-rritako **hamar kantara** ardo (160 litro) da nobe-naixo egunerako edateko moduen jarten den kan-tadie upel baten, ardaue, **Musakolako Meneta tabernak itxitako pitxerrekin** partiruten da ta edaten ez dan ardaue, hiru edo lau kantara, egun berien **Iturbide egoitzako tabernara** erueten da, gero, **Maritxu Kajoi egunien**, ardaue goxo hori jubilauek edan daixien.



Aranguren basarriko ogixe ta gehixenetan jatorri arabarra dauken Idiazabal tankerako gaztaie (30 kg. inguru) izaten die, ardoaz batera, Maritxupeiien musu truke emuten dana. Auzuetatik ta erdialdetik etorritako jentien gosie ta egarrix pasautakuen, gabeko 9:30xek aldera ixten daue txosna (aldare) espezial hori; hori bai, **espezieta**n, nobenaixuai biher dan moduko hasierie emun ta gero.

1997. urtien nobenaixue irailaren 27xen egin zan ta ezagune danez, orduen egunien Euskal Herri osuen "gudari egune" ospaketan danez, Arrasaten antolatutako manifestaziñue egin bitartien nobenaixuen tabernie itxita egon zan. Manifestaziñue herriko plazan akabau ta manifestaziñuen ibilitakuek tabernie zabalketan fan zien ta esan leike, lasai asko, denbora gutxixen, jeneralien ordubetien emuten dan adinako gaztaie, ogixe ta ardaue hartu euien, manifestaziñuen ibilitakuen eztarrixek, holan, deskantsu edarra hartu euien.

Aittaketako modukue da urtero nobenaixuen egunien Murumendiaraz gozotegiko Maritxu Kajoiren zaintzaile fidelen ta Maritxu Kajoiren kofradien artien alkarri emuten dotzien jakixek, Komisiñuek ardaue, gaztaie ta ogixe Gozotegikuei emuten dotzien bitartien, ta hareik kofradiei egundoko zaporie dauken pastel gozo-gozuek emuten dotzie.



Maritxun TXANPANA

"Gure Deba ta Aramaixo ibarretako mostoik goxue-naz egindako kaba dauko botella honek. Udalatz puntako tenplarium ermitako bodega famauetan maitasun osuaz botilleratua da". Urrezko domiñie Paris, Maule, Vaticano ta Alacanteko ardaux feixetan. Apartekotzat jo daue Mondraueko Santamasetan. San Antonio Kofraixen erari ofiziala. Arbigarak egosteko besteik ez morukue. Goxeko zazpirek aurretik eraten ahalegindu. Astinddu ondo botellie, eraten hasi aurretik" **NIHIL OBSTAT IMPRIMATUR** (Elizaren zentsuratik ondo pasau dala adierazteko da)

Jatorrizko agiri horreaz 10 urtien (1986-1995) **Leintz Arroa Korporaixione**k makina bat botella saldu euen, Maritxu Kajoi jaixetan dirua batzen lagunketako ta herritarrak ondo pasetako.

Fan zan mendeko 80ko hamarkadan erdialdien, jentiek txanpana (kaba) edateko ohiturie euen; batetik, prezien ondo euelako ta, bestetik, gabe-ko orduetan ibiltteko, txanpana bakarrik edanez gero, beste edari bateaz nahastu barik, bixamo-nien ajeik ez izateko oso ona ei zalako (betiko leiendak, baina ajerako oingoz, behintzat, mila-groik ez dago).

- 1986. urtien lelengoz Komisiñuek txanpana (kaba) saldu eutzien partikularrei ta tabernata-koei; makina bat bieleku ta lan egin biher izan euen komisiñuko partaidiek.
- Lelengo txanpana (kaba) San Sadurni de Noiak Can Quetu etxetik ekarri euen Komisiñuek, Kataluniatik ekarritako **8.400 botella hareik (700 kaxa)** etiketetako ta Maritxu Kajoiaren kaxetan sartzeko, komisioko partaideek, gau ta egun argitan, jo ta ke, gogor egin biher izaten euen, lelengo Etxezuri tabernako instalaziñue-tan, hori lokaloi soto edo txanpandegi bihurtu zan-ta Komisiñoko partaidiendako. Ekarrirako kaba, **lehorra ta erdi lehorra tankerakue** ziren ta etiketaz aparte, botella bakotzak lepuen lau hizkuntzatan, euskeraz, gazteleraz, ingelesez ta japonieraz egindako jatorri agirixaren liburutxue eroan, ta kabaren jatorri historikue agerketiaz aparte, Debagoixeneko mapa bitxi baten, Arrasate

Arroa Korporaixionek mahatsa ta sotuek non dituen jasoten zan zer horreitan.



- Mapak diela-ta zelako hasarrie hartu euien Aretxabaleta (auzoko), barkatu, herriko hainbat herritarrek, liburutxu horreitan Aretxabaleta Arrasateko auzo moduen agerketan zalako, protesta moduen edo, Maritxu Kajoi egunien baserri-tar jantzita agertu zien ta pegatina atera euien. Edozein modutan be, komisiñokuek uste izen dogu ez zala horrenbestera, txantxa zintzue zana gero egixe bihurtu dalako, ze ikustie besteik ez dago, azkeneko urtietan zenbat arrasatear joan dan bizitten Atxabaltara.

Mapa horreitan be, urte baten, danok ago zabalik geratu gitzela, **desagertu egin zan Bergara herrixe** ta haren lekuen, udalerriaren izena **Osintxuko erreserbana** zala ager-

ketan zan. Leintz Arroa Korporaixionek egixe bihurtu euen osin-txuarrek betittik independentziarako izan dauien gogue, ta gañera, badakizue aspaldiko kantu batek zer dixon: "Oñate por el chocolate, Mondragón por lo industrial y el pueblo más... partido judicial".

- Lelengo txanpana Kataluniatik ekarri bazan be, hurrengo urtietan, **Euskal Herrixen egindako lehenetako txanpana**, **Oion herrian** egindako txanpana ekarri gauen gurera. Gogoraketakue da 1988. urtien-edo komisiñoko hiru kideri gertautakue, txanpan enpresakuekin sinatu biherreko kontratue sinatzeko asmuaz Oionera fan zienien. Kontratue sinatu ta txanpan enpresako saltzailiaz baso erdi batzuk edaten ebitzela tabernan, eurixe egiten hasi ta atertu bitartean, tabernan jarraitu euien poteuen, baña gero-txuau, alkar agurtu ta gero, saltzailioi automobile hartzen fan zaniene, konturatu zien saltzailiorren autoko atien heldulekuraino allegetan zala uren nibela. Galdara batzuekin lagunduta, autora sartutako ure hustu euien ta azkenien txanpan enpresako komertzialak lortu euen etxera fatie, baña ur handi harek ixexixe eruen euen txanpan saltzailien automobile.

Lelengotan ondo hartu euien ha txanpana, baña pasatu berri dan mendeko 90eko hamarkadan aldatu egin zan txanpana gabez edateko ohiturie, jentiek garagardae, kalimotxue edo nahastutako beste edari batzuk edaten zittuelako.

Edozelan be, txanpanaren kontue bultzeketako, makina bat ahalegin egin bazan be, esate baterako, txanpanzalien aholkuei jarraituaz, **brut** tanke-rako txanpana ekarten edo, tabernarixei jaramon eginez, txanpanaren merkatuko markaik ezaunena ekarten, ohiturak aldatu zielako-edo, Komisiñuek erabaki euen egokixena zala ez saltzie gehixautan txanpanik, ta **1995. urtie** izan zan bitse dauken produktu horren azkeneko urtie.

Ohiturak ohitura, danok daukogu goguen, Maritxu Kajoi txanpana aurrera egiteko, komisiñuek ze lan egin dauen txanpana saltzeko, tabernarixek ta hainbat partikularrek lagunduta, etiketie zein liburutxuen jatorri agiririxen etorria ta orijinaltasuna ta haren presentzia, ze ondion be etxe batzuetan ta munduko zenbait herriako tabernetan, botellak hutsik edo beteta, apaletan dauz-ta; garbi erakusten dau horrek herriko jaixe dala Maritxu Kajoi ta benetan originala dala.

Kantuek Kontu

Maritxu Kajoi ez litxake ezer izengo musika barik, hau da, kantu barik. Asko izen die Maritxu Kajoi egunien kantau izen dien bertsuek eta koplak. Hor dauz programetan eta eskapulaixo atzekaldien idatzitako bertsuek. Horren artien aittaketako modukuek die lelengo programien Joserra Garziak Maritxuri egindako bertsuak. Eta zelan ahaztuko dogu "Maritxu nora zoaz" herri kantue? Horixe kantetan daue Maritxu Kajoi egunien hurreraketan dien neska-mutikoe eta kuadrillak. Bañe Maritxuri ez jako urriaren lehen eguakotxien baka-rrik kantetan, ikusi bestela: San Fermin egunien Txatxilipurdiko umiek entzierrue hasteko "Maritxu nora zoaz" kantetan daue. Sanjuanetako entzierruek hasi aurretik, ekainaren 24, 25 eta 26xen kantatu eta lorak emoten jako Maritxui eta, azkenik, Santa Agedako koruek be Maritxui kantetan dutzie. Ikusten da urteko edozein sasoitten kantetan jakola Maritxui.

MARITXU NORA ZOAZ

Maritxu nora zoaz
eder galant hori ?
Iturrira, Bartolo,
nahi badezu etorri.
Iturrian zer dago ?
Ardotxo txuria,
biok edango degu
nahi dezun guzia.

Maritxu zuregana
biltzen naizenian
poza nabaitutzen det
nere barrenian.
Bartolo, nik ere det
atsegin hartutzen,
ur-bila nuanean
banazu laguntzen.

Maritxu, baldin asmo
badezu ezkontzia
lehendabiziko nitaz
oroitu zaitia.
Zure mende jartzen naiz
denbora guziko,
Bartolorekin gaizki
ez zera biziko.

Aspaldi hontan ilun daukagu
gure zeruetako goia
ama Maritxu ez dagolako
lehen bezazalo joia.
Horregatikan bihotz-bihotzez
egiten dugu otoia,
guztiahaldunak itzul dezaion
lehen bai lehen bere kajoia.

Kajoia zuen ama maiteak
egun txarretan aterpe.
Orain negar malkotan ari da
kajoi berri baten eske.
Txikiteroak pobre gera ta
ohola ez dago merke,
baina herriak diru mordoxka
eman du Maritxun alde.

Diru horrekin zerbait ein
behar
ta hasi gerade lanean,
herriko bitxi pare gabe hau
lehengoan utzi nahiean,
kajoi berria egin dizugu
borondate onenean,
izan zaitezen izar eder bat
txikiteoko bidean.

Badakigu Maritxu maitea
ezin hobea zerana,
ta beldur gabe etorri gara
txikiteroak zugana.
Mesedetxo bat eskatu ere
nahi dugu, arren, ama:
ZERUAN ETA INPERNUAN
JAR ZAZU TABERNA BANA.

"Joxerra Garzia"

GURE AMA MARITXU KAJOIKUAREN BEDERATZIURREN BERRIA

0. PREGOIA. PORTALOIAN

Agur, Arrasateko
euskaldun beroa,
Portaloiereder hontan
Joko dut bandoa:
etorri niregana,
argitu gogoa,
bederatziurrena
hastera bait doa.

1. MISTERIOA. MONTEnean.

Ondratu nahi genuke
ama kajoikua,
munduan zabalduaz
haren meritua.
Urtero urriaren
lehen barikua,
ez da hemen izaten
festa barikua.

2. MISTERIOA. MENDInean

Bizimodu eskasa
txikiteroena,
ondo pentsatuz gero
ematen du pena.
Garesti izatea
ez dugu txarrena:
hautsa da ardo orde
saltzen digutena.

3. MISTERIOA. AIZKORAnean

Ardozaletasuna
ez da pekatua:
Noe zaharrak aspaldi
bait da asmatua.
Berrogei eguneko
euriz naskatua,
urik ez edateko
egin zun tratua.

4. MISTERIOA. BENGOnean

Ardoa edateko
guk bokaziyua,
ez da lotsatzekoa
gure biziya.
Zure seme laztana
zen hortan iaiua:
ardoak badu haren
bedeinkaziyua.

5. MISTERIOA. OKOROnean.

Hortxe zaude, Maritxu,
kajoi eta guzti,
euria egin arren
ez zaitezen busti.
Ez dizugu eskatzen
ez pattar, ez wiski...
ardoa ardo bada
guretzako aski.

6. MISTERIOA. IZKINAN

Maritxu, egin zazu
beraz miraria,
kajoiak merezi du
ordainez saria:
urtean egun batez
gure edaria
zu bezalaxe dadin
sortzetik garbia.

7. MISTERIOA. BIONAN

Kajoigilea dugu
txit mutil azkarra,
herri honetan bada
beraren beharra.
Erabil zazu, ama,
zeruko indarra
infernuko zulotik
libratzeko Txarra.

8. MISTERIOA. UDALAITZEN

Txarra kapitain dela
Txispas eta Sandro,
krisirik ez da baina
Krisis hortxe dago.
Laubide, Konkon eta
pare bat gehiago...
munduan ez da hauek
behar beste ardo.

9. MISTERIOA. MARITXUREN AURREAN

Maritxu, bihotzetik
zuri erreguka
aritu gara eta
ez saririk uka.
Zure omenez doa
gaur gure zurruta,
hori eta gehiago
mezeri duzu-ta.




Arrasatearrok "Maritxu Kajoi" moduan ezauketan dogun irudixe, berez, "Errosarioko amabirjina"ren irudixe da ta 150 urte baño gehixau egon zan "bere tokixen", hau da, Erdiko kaleko elexpien ate gañeko abozinamenduen. 1994. urte arte, hau da, Maritxu Kajoi jaixen lehen 17 urtietan, eta hor tokixen hasi zan Maritxun jaixe eta gure kantuek eta lora sortak emuten. 1995. urtien, oster, gure Maritxu "bere tokitik" aldatu egin euien, bere lekue, danok dakigun moduen, Herriko plazako iturrixen atzekaldien dauzen kontrahormen artien, hortarako egokitu zan hormakonka gotikuen.

Baño zer dala ta aldatu euien lekuz gure Maritxu Kajoi? Maritxu Kajoi jaixen 25 urte jasoten dituen liburu honetan 1994. ta 1995. urtietan zer horren inguruen izendako gorabeheren barri emutie interesgarrixen pentsau jaku Maritxu Kajoi komisiñuko partaidioi.

San Juan parrokiaren zahar-barrizketako lanak ziela ta, 1994ko urtarrilien Maritxu gordeten dauen kajoiko giltzie parrokiako arduradunen esku utzi euen komisiñuek. Urte bereko iraillen, Maritxu zelebretako egune etorrela eta komisiñue hartu-emunetan jarri zan parrokiako arduradunekin, urtero letxe, jai egunien Maritxu bere lekuen egoteko. Iraillen alde bixen artien egindako batzarretan ez zien ados jarri ta jarrera bixek aurrez aurre jarri zien: parrokiako arduradunak, kostau

ala kostau Maritxu parrokiatik atera gure euien eta, komisiñuek, barrez, Maritxu ordura arte letxe, Maritxu Kajoi "bere tokixen" eduki gura euen.

1994. urtien urriaren 7an zelebrau zan Maritxu Kajoi jaixe. Nahiz eta komisiñue eta parrokiaren artien akordioik ez egon, parrokiako arduradunek Maritxu Kajoi bere tokixen jarri euien jai egunerako. Festa, betiko moduen, normaltasunez eta exito haundixaz zelebrau zan. Jai egunien Maritxu Kajoi bere tokixen egotie urteko mirarixen izan zan eta holaxe azaldu euien be egunkarixetako Arrasateko kroniketan. Baño jaixe pasau eta astebetara, Arrasateko parrokiak El Diario Vasco egunkarixai esandakuekin jentien artera zabaldu euen eztabaida. Parrokiak komisiñuan gañien berba gogorak egin zittuen ta, Maritxu Kajoi lekuz aldaketako, arrazoi estetikek ta arkitektonikek aittaketan zittuen: obrak bukatutakuen atiek egunero sartu ta urteteko izaera errekupe-rauko euela batetik ta, bestetik, parrokiako tinpanue XV. mendekue ta gotiko estilokue izanik, ezin diela bixen batera egon, XVIII. mendeko irudi barrokuaz. Parrokiak Maritxu lekuz aldaketako egindako proposamenen barri emun eutzon komisiñuai. Leku horrein artien Udaletzeko balakoie ta Zurgin kantoiko arkue euzen. Parrokiak esandakuei belaxe erantzun eutzon Maritxu Kajoi komisiñuek. Horren inguruko eretzixe plazaratu euen Komisiñuek, bestiek beste,



honeik esan zittuen: Parrokixako arduradunek emuten dittuen arrazoi estetiko eta arkitektonikuek atxakixak baño ez die eta Maritxu lekuz aldaketako benetako arrazoie da jaixai nortasune eta indderra kendu gura izetie.

Gaixen gañien eztabaida haundixe izen zan eta orduko herri prentsako artikuluek eta eretzi artikuluek hor dauz ikusteko. Baten batek zer hortan joraketako gogue eduki ezkerro, badaki hemeroteka nun dauen.

1994. urtei holan fan zan eta 1995ien horrek gaxorrek ez euen horrenbeste zalaparta atara. Ondion obretan euen parrokixan jai egunerako Maritxu Kajoi bere tokixen jarri euien. 1995. urtien harremanetan jarri zien Maritxu Kajoi

komisiñuen ta San Juan Bautista parrokixie barrizketiaz arduraketako euen batzordien artien. Horko batzordeko partaidiek beste jarrera bat agertu euien ta hainbat batzarretan gaia jorratu ta gero, akordio bat lortu euien 1995eko abenduaren 20an, eta ordutik badakigu non dauen Maritxu Kajoi.

Komisiñuek Maritxu "betiko tokian" eukittie gura euen bañe, komisiñokuek erabat ados jarri barik, parrokixie barrizketako arduradunek erakutsi euien jarrera aldaketie zer onien balorau euienez, erabaki euen onartzie edo, behintzet, orduen momentuen "aparketie".

Egixe esan Komisiñoko partaideen gogue izengo litxake Maritxu "betiko tokixen" eukittie ta 1995etik hona zer gertau dan ikusitte, harrittu egin gaue, indartu egin die horreik danok. Izen be, Maritxu euen toki berien "Santa Marina"n irudixe jarri daue. Argi dago ez dogula ezer irudi horren kontra, bañe, nun gelditu die Maritxun leku aldaketa arrazoi-tten euien argumentu estetiko eta arkitektonikuek?. Denborak erakutsi dosku atxekixie baño ez zala hori. Gaixek ondion be emuten dosku zer pentsau Komisiñoko partaidioi, bañe oin Maritxu Kajoi lekuz aldaketako horren atzien zer euen erakustie baño ez dogu helburu. "Maritxu nora zoaz" dixo kantuek, bañe guk betiko tokixen gura zaitugu, egunero eta betiko.

Edizioa: Maritxu Kajoï Komisiñue
Legezko gordailua:
Imprimatzea: SACAL Inprimategia
Diseinua eta maketazioa: Key Taldea